

# LIBURUTEGIEN

2006 BULETINA

# Euskal Sistema

Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saileko Kultura Ondarearen Zuzendaritzak Liburutegi Zerbitzuak hainbat jarduera egin ditu 2006. urtean zehar Euskadiko liburutegi publikoekin lankidetzan. Jarduera horien guztien laburpen bat eskaini nahi dugu buletin honetan.

Nagusiki, Irakurri kanpaina nabarmendu nahi dugu. Kanpaina hori irakurketa eta Euskadiko liburutegi publikoen zerbitzuak sustatzeko antolatu da, eta bertan parte hartze zuzena izan dute EAEko liburutegiek, tokiko administrazioek, gizarte eragileek eta komunikabideek.

Kanpainako jarduerak, izatez, bi ardatzen inguruan garatu dira: jarduera batzuk liburutegietan antolatzen diren zerbitzuak plazaratu eta ezagutzera emateko izan dira, eta beste batzuk herritarrek liburutegietako kultura-esparrura erakartzera bideratu dira.

Hiru lurraldeetako liburutegiek parte hartu dute Irakurri kanpaina eta bereziki Bizkaiak, kanpaina parte hartu duten liburutegien %50 herrialde horretakoak baitziren; %30 ziren Gipuzkoakoak, eta Arabako-

ak gainontzekoak, hau da, %20. Kanpaina era askotako jendeak hartu du parte, hala nola, haurrek, neska-mutil gazteek, erretiratuek, immigranteek, kultura arloan ari diren talde eta elkarteek, liburutegiek, eta abarrek. Horiek guztiek kanpainari buruz egin duten balorazioa baikorra da oso.

Buletin honek tartetxo bat eskaini nahi die, halaber, egunean eguneko eginkizunak osatzeko Liburutegi Zerbitzuak eta Euskadiko Liburutegi Sistema Nazionalako beste erakunde batzuek antolatu dituzten bestelako jarduerari ere, esaterako hainbat kongresu eta forotan parte hartzea, non Euskadiko Liburutegi Sistema Nazionalaren funtzionamendu-eredua ezagutzera eman baitugu.

Azkenik, eskerrak eman nahi dizkiet jarduera horietan guztietan parte hartu duten liburutegietako langileei, eta jakinarazi nahi diet lankidetzan hori urtez urte sendotzeko asmoa dudala.

**Arantza Arzamendi Sesé**  
Kultura Ondarearen zuzendaria

## "IRAKURRI" IRAKURKETA ETA EUSKADIKO LIBURUTEGI PUBLIKOEN ZERBITZUAK SUSTATZEKO KANPAINA

**E**usko Jaurlaritzaren Kultura Ondarearen Zuzendaritzak 2006. urtean zehar bultzatu dituen kultura-jardueretan aipagarri gertatzen da irakurketa sustatzeko eta Euskadiko Liburutegi Sistema Nazionalako (ELSN) liburutegi publikoetara jendea erakartzeko proiektu hau. Bertan parte hartze zuzena izan dute EAEko liburutegiek, tokiko administrazioek, gizarte-eragileek eta komunikabideek.

Kanpaina hiru alderdiren azterketa eta behaketa oinarritu da: irakurtzea berez zertan den, irakurle-

goari buruz hausnartzea eta ELSNen sartuta dauden liburutegiak protagonista aktibotzat hartzea.

Helburu nagusia zera izan da: gutxi irakurtzen duen edo noizbehinka irakurtzen duen irakurleari (irakurle ahula, zenbait izendapenen arabera) liburutegira joateko beldurra galtzen laguntzea, arrotza gertatzen zaion mundu horretara hurbiltzen laguntzea, alegia.

Hori dela eta, liburutegietan irakurtzeko liburuez gain beste jarduera eta zerbitzu batzuk ere eskaintzen direla zabaldu nahi izan da, adibidez, tailerrak, musika, filmeak eta holakoak.

*Irakurri* kanpaina antolatu diren kultura-jarduerak irakurtzea denon ondarea dela jakinaraztea izan dute helburu. Horretarako, liburutegiak herritarrengana hurbiltzeko alegia, jarduera dinamiko eta sortzaileak eratu dira honako bi ikuspegietan oinarriturik: *liburutegia kalera eramán* eta *kalea liburutegira eramán*.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA  
DEPARTAMENTO DE CULTURA

Laneko estrategiak talde bakoitzaren irakurketa mailaren arabera antolatu dira. Hala, esaterako, haur eta gazteek batez ere



behartuta irakurtzen dutela ikusida. Horregatik, eskolatik kanpoko jarduerak antolatu dira hainbat urtesasoietan, irakurtzea eskolako betebeharra izateaz aparte beste zerbait ere badela zabaltzeko. Horren haritik, hiru lan-fase antolatu dira: lehen jarduera, apirilean, Liburuaren Mundu mailako Egunaren inguruan; bigarren fasea, ekainean, eskolako oporraldia hastearrekin batera; eta hirugarrena, urriko Liburutegien Egunaren aitzakiaz.


Jarduerak asmatzean kontuan izan da adinaren aldagaia. Hala, jarduera bereziak antolatu dira haurrentzat, gazteentzat edota adinduentzat; hizkuntzaren parametroa ere kontuan izan da, eta euskara hedatzeko jarduera bereziak eratu dira.

Kanpainak 2006. urtean izan duen eragina baikortzat jotzen da oso, eta bertan parte hartze garrantzitsua izan dute EAEko liburutegi askok<sup>1</sup>.

## IRAKURRI KANPAINA. PARTE HARTU DUTEN UDAL LIBURUTEGIAK LAN-FASEAREN ARABERA

	ARABA	GIPUZKOA	BIZKAIA
<b>1. FASEA</b>	Amurrio Iruña Oka	Andoain Arrasate Irun	Erandio Iurreta Markina-Xemein Zalla
<b>2. FASEA</b>	Alegria-Dulantzi Artziniaga Laguardia	Bergara Elgoibar Eskoriatza	Arrigorriaga Bermeo Etxebarri Getxo Zamudio
<b>3. FASEA</b>	Laudio	Eibar Irun Itsasondo	Arrigorriaga Ermua Etxebarri Gorliz Leioa Otxandio Portugaleta

## IRAKURRI KANPAINA. PARTE HARTU DUTEN LIBURUTEGIEN BANAKETA LURRALDEZ LURRALDE



## Udalek izan duten parte hartzea

Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurraldeetako liburutegi-zerbitzuek kalean egin dituzten jardueretan aipagarri da, besteak beste, *Irakurri kalean* kanpaina. Kanpaina bitxi horretan liburutegiak fisikoki –bere liburu eta guzti, esanahi da– irten dira azoka, taberna, gimnasio, erretiratuaren etxe, haur-parke eta abarretara.

Bermeo, Eskoriatza, Erandio, Markina-Xemein eta

Andoainen, adibidez, liburutegien "sukurtsalak" jarri dira merkatuen inguruetan, liburutegi-zerbitzuak herritarrei zuzenean eskaintzeko. Herritarrek lore, arrain eta nekazaritzako produktuekin batera liburuak ikusi, miatu eta maileguan etxera eramateko aukera izan dute. Etxebarrin, liburu-mahaiak jarri dira

metroaren geltoki inguruan eta osasun-zentroan; mahai horietan, informazioa eskaintzeaz gain, bertako udalak argitaratutako gida-liburuak banatu dira, irakurketa sustatzeko.

Getxon, ordea, kanpaina taberna eta kafetegietara eramana da, baita lokutorietara ere immigranteengana iristeko.

1. Udal mailan garatu diren jarduerak Kultura Saileko Liburutegi Zerbitzuaren honako webean ikusi daitezke: [http://www.kultura.ejgv.euskadi.net/r46-4879/eu/contenidos/informacion/irakurri\\_hasiera/eu\\_irakurri/irakurri\\_hasiera.html](http://www.kultura.ejgv.euskadi.net/r46-4879/eu/contenidos/informacion/irakurri_hasiera/eu_irakurri/irakurri_hasiera.html)

Beste herri batzuetan oso jarduera interesgarriak antolatu dituzte, hala nola, Laguardian (ipuín-kontalariak), Alegría-Dulantzin (liburuak sinatzea), Zallan (idazteko, irakurtzeko eta marrazteko tailerra) eta Arrasaten (haurren jaialdia).

Kanpainaren barruan antolatu den beste jardura berezi bat *Irakurri espaloietan* izan da; jarduera hori umeentzat eratu da batez ere, eta herriko neska eta mutilek sinbolikoki herrian herriko liburutegirako bidea marraztu behar izan dute.

Kultur talde eta elkarteek parte hartzeko jarduerak ere antolatu dira. *Irakurri elkarrekin* jardueraren bidez herritarren talde horiei liburutegian leku bat hartzeko gonbidapena egin zaie.

Kanpainan zehar 40.000 orri-adierazle eta 75.000 kalakomania banatu zaie gazteei. Tatuaje itsasgarri horiekin mezu hau hedatu da: *Harrotasunez irakurri*.

Irakurketa hedatzeko kanpaina liburutegi eta tokian tokiko administrazioen parte hartzeari esker garatu da.



Horien laguntza funtsezkoa izan da, kanpaina bideratu eta aurrera eramateko.

## BERRIAK

### ARGITALPENAK

**E**usko Jaurlaritzaren Liburutegi Zerbitzuaren ekime-  
nez Michel Meloten liburu bat argitaratu da Arantza Beltrán de Herediak gaztelaniara itzulita: *La sabiduría del bibliotecario*. Melot ezaguna da liburutegien munduan Pompidou Zentroko Informaziorako Liburutegi Publikoko zuzendaria izan delako. Melotek, literatura-erreferentziak oinarritzat hartuz eta bere eskarmentu luzeko anekdotak erabiliz, bere lanbideko funtsezko alderdi batzuk errepatatzen ditu liburu horretan.

**E**usko Jaurlaritzaren Kultura Sailak Alberto Villalón-  
ek koordinaturik Salamancako Germán Sánchez Rui-  
pérez fundazioak argitaratutako *Encabezamientos de materia para libros infantiles y juveniles* liburua euskaratu eta argitaratu du *Haur eta gazteentzako liburu-  
ruetarako gai-sarrerak* izenburupean.

### KONGRESUETAN PARTE HARTZEA

**E**usko Jaurlaritzaren Liburutegi Zerbitzuak Baratz tele-  
dokumentazioko enpresaren gonbidapena jaso zuen *I. Baratz Foroa: liburutegiak informazioaren gizartean* izene-  
ko foroan parte hartzeko; eta Liburutegi Zerbitzuak azaro-

aren Tan Madrilen egin zen *Nuevos modelos de servicios públicos en bibliotecas* mahai-inguruan parte hartu zuen.

**E**LSNko hainbat kidek ere parte hartu zuten *III Congreso Nacional de Bibliotecas Públicas* izeneko kongresuan. Hori Murtzian izan zen azaroaren 29 eta 30ean eta abenduaren leian, eta bertaratu zirenek *La biblioteca pública, espacio ciudadano* izan zuten gai nagusitatz. Liburutegi Zerbitzuak, bestalde, *Acercando la información a la ciudadanía: la red en línea del Sistema Nacional de bibliotecas de Euskadi* ponentzia aurkeztu zuen.

**A**ldee-ek\* irailaren 21ean Bilbon *Artxibo, liburutegi eta dokumentazio zentroetako lanbidea. Lanbidea berrindartzeko jardunaldi estrategikoa* izeneko jardunaldi profesionala antolatu zuen.

### DIRULAGUNTZAK

**2**007. Hasi berria den urte honetarako berrikuntza bat ELSNko liburutegiek dituzten baliabide teknologikoen hobekuntza eta modernizazioa ahalbidetuko dituen dirulaguntza bat da.

\* Aldee Artxibategi, Liburutegi eta Dokumentazio Zentroetako Profesionalen Elkarte da. [www.aldee.org](http://www.aldee.org)

## **Euskadiko Liburutegien Legea: GEURE LIBURUTEGI SISTEMARANTZ**

**E**uskadiko Liburutegien Legea Kulturaren Euskal Planeko hausnarketen ondorio da. Lege horren bidez 1990. urteko Kultur Ondarearen Legea garatuko da, EAEko liburutegiei dagokionez. Gaur egun legea Legebiltzarrean dago behin betiko onespenera sartu aurretik egin beharreko izapideak egiten.

Lege honen bitartez liburutegi-azpiegituraz eta zerbitzuz hornitu nahi da liburutegi-sektorea; eta aldi berean sektore hori herri-administrazioek koordinatzeko moduan gaitu nahi da. Lege berri honek, Euskadiko egungo liburutegi-sistema oro har berrikusteko aukera emateaz gain, sistemara gehituko ditu Europar bibliografiaren arloan sortutako eredu eta teknika berriak.

Euskadiko Liburutegi Sistema, hortaz, lankidetzaharremenen bitartez liburutegi-zerbitzuak emateko gai diren erakundeen multzoa da lege honen ikuspegitik. Hauek dira sistemaren oinarriak: informazio-politika, nazioarteko lankidetzaz, planteamendu bibliotekario bat (administrazioen arteko koordinazioa) eta Euskadiko Liburutegiaren izatea bera.

Legearen testu osoa: <http://parlamento.euskadi.net>

## **EUSKAL LIBURU ONDAREA**

**E**uskal bibliografia-ondareztat jotzen dira, euskarria edozein delarik, Euskadin argitaratu edo ekoiztutako obrak, eta euskararen hizkuntza-eremuarekin zerikusi dutenak, batez ere euskal idazleek sortutakoak direnak eta euskaraz idatzi direnak. Euskal bibliografia-ondarekoak dira, gainera, edozein euskarritan dauden obra bibliografikoak, baldin eta Euskadin daudenak badira eta balio historiko eta kultural nabarmenak badituzte.

Euskadiko Bibliografia Ondarearen hedapen-bidean aurrera egiteak, nahitaez, Antzinako Liburu Funtzaren Katalogoa sortzea eskatzen du, Euskadiko liburutegietan banatuta dauden liburuak gorde eta zaintzeko. Katalogatze-lan hori aurrera eramateko, lankidetzaz-hitzarmena sinatu zuten 1994. urtean Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak eta Kultura Ministerioak.

Gaur egun katalogo hori honako erakundeetako funtsez eratu da: Gasteizko Seminarioa, Eusko Legebiltzarren Antzinako Funtza, Lazkaoko Monasterioa, Loiolako Santutegia eta Donostiako Udalaritza-Liburutegiko Duque de Mandas Funtza. Bibliografia Ondarearen katalogo horretan biltzen dira 1900. urtea baino lehen argitaratutako liburuak eta EAEko liburutegietan daudenak.

<http://www.liburutegiak.euskadi.net/bilgunea>

## **BILGUNEA, EUSKADIKO KATALOGO KOLEKTIBOA**

**E**LSNek on line jarritako katalogoarekin batera, Eusko Jaurlaritzaren Liburutegi Zerbitzuak Bilgunea izeneko katalogo kolektiboa garatu du EAEko beste instituzio publiko eta pribatu batzuekin lankidetzan. Katalogoaren erakuntzari 2000. urtean ekin bazitzaion ere, berebiziko garrantzia du urtero-urtero muga eta funtzioak berregituratzeak, katalogoa euskal bibliografia-ondarearen erreferentzia izan dadin. Hori dela eta, lau hilabetez behin eguneratzen da, eta gaur egun milioi eta erditik gora erregistro eskaintzen ditu. Honakoak dira Bilgunean parte hartzen duten instituzioak: Lege Gordailua, Eresbil, Euskadiko 200 udal-liburutegi inguru, Eusko Jaurlaritzaren sailetako liburutegiak, Euskal Herriko Unibertsitatea, Deustuko Unibertsitatea, Mondragon Unibertsitatea, Sancho el Sabio fundazioa, Arabako Foru Aldundia, Labayru Euskal Biblioteka eta Euskal Bibliografia Ondarea.

Iragan urtean, 2006an, beste instituzio hauek ere gehitu ziren Bilgunera: IVAPeko katalogoa, Koldo Mitxelena liburutegia eta Bibliografia Ondareko funts batzuk (Eusko Legebiltzarreko antzinako funtsaren katalogoa eta Duque de Mandas funtsa). Bilgunea gaur egun oso tresna garrantzitsu eta erabilgarria da liburutegietako profesional guztientzat, alde batetik, aipatutako liburutegietako funtsa web bidez ikusi eta arakatu daitekeelako, eta bestetik, jada katalogatuta dauden erregistroak jakinda, eginkizunak bikoiztea ekiditen delako.

<http://www.liburutegiak.euskadi.net/bilgunea>

## **EAE-KO LIBURUTEGI PUBLIKOETA- KO ZERBITZUEI BURUZKO ESTADIS- TIKA IKERKETA**

EAEko liburutegi publikoetan informazioa biltzeari ekin zitzaion 2006ko azken hiru hilekoan, honakoen ezaugarri nagusiak ezagutzeko: bildumak, liburutegietako erabilzaileak, erabilerak eta ezaugarriak, irisbideak eta instalazioak, zerbitzuen automatizatze maila eta Interneten erabilgarritasuna, eta liburutegietako pertsonalaren ezaugarriak. Era horretara 2005. urteari buruz lortutako informazioak azken urteetan zerbitzu horiek izan duten bilakaera ezagutzeko aukera emango du, eta aldi berean, sektorearen input-a ezagutzeko balioko du Kulturaren Euskal Behatokiari dagokionez.